



## SARIYA

# Joshe Mari Usandizaga-ri

*¿Zer da gaur nigan gertatzen dana?  
 ¿Zerk nai abilkí borrokan?  
 ¿Aizeak aldit mogikoturik  
 jarri biyotza kolokan?  
 egun oetan alaiki nabill  
 erramu loezko zortan,  
 Dier burutik Usandizagak  
 bidaldu digun gozotan,  
 ainbesteraino, zeiñ eitztariya  
 nola mendian usotan.*

Nere biyotza pozak dabilki  
 egiñik zañetatik zart,  
 paketu eziñ nuben iñola  
 beintzat nik ametsetan bart;  
 izkiñ aritik Dier buruko  
 barren barrendikan dakart,  
 chalo ta oju ayen albista  
 guretzat pozduna dan bat,  
 geyagokorik ez da izango  
 ta goigarrigorik anbat.

Dun, dun egiñaz daukat barea  
 egin du onek ere ler,  
 gai ugari ta obeaguak  
 izan litezke bañan gzer,  
 ez badu iñon nere aditzak  
 aditu oberik ezer?  
 mindun, bekaitzu, gaur arki dira  
 garidiyan lau galeper,  
 eta negarrez enaden goitez  
 ¡Negarrez airbeste eper!

Biyotz mogikoi onen aginduz  
 begiyak osarik argiz,  
 gaur arki gera dantz egin zale  
 poza nausi dala agitz;  
 datorrelako oso ornirik  
 goramen aundi ta garbiz,  
 bere burua apaindurik  
 dakarki urezko ariz,  
 gañera berriz matz mordo gisan  
 baliyo aundizko arriz.

Enadak dute Joše Mari-ren  
 buruan egin kabiya,  
 ta ugaritu dizdiranturik  
 muña jirako argiya;  
 Erbestetikan dakar koroi bat  
 apain ta goikia jarrija,  
 donostiarren atsegirgarriz  
 betiko oroigarrija,  
 doñu apainde jakintsuenak  
 achitzen duten sariya.

JUAN IGNACIO URANGA